
MANU OÑATIBIA

Sarri izaten da Gipuzkoa, guretzat, bizkaitarrentzat, euskal bizibideko gertaeren barri emole.

Egunak dira gipuzkoar euskaltzale jator bat il zala. Eta oraindik ez dogu bere ezelako barririk jakin.

Nire ustez, Oñatibia tar Manu, jaiotez oiartzuarrak, nai ta berak urte luzeak Zarautzen igaro, merezi dau illeta ondorengo agur bero eta biozkor bat.

Erraz da gaur euskaldun agertzea. Eta arro agertu ere. Irrati, telebista, egunkari, eta aldizkari idazle, liburu egille edo ta beste duintasunen baten bidez, zela alako entzutea artzea be. Ez da gaitz.

Baiña jo... jo urteetan atzera.

Zenbat ausartzen ziran euskal egunkari, irrati eta abarretan euskal agerpideak egiñaz euskal itxaropena sendotuten, orain berrogei edo geiago urtetan? Eta onuntzago ere?

Eta gu urteetan aurrera goazenok, Bizkaiko errietatik be Gipuzkoako irratia entzuteko garretan egoten giñan, andik etorten ziralako biotza berotu eta adimena argitzen ekien berriak. Orretan ggoratzen genduzan Maria Dolores Agirre, gaur be gordin bizi dan andre jatorra, Iñaki Eizmendi "Basarri" ospetsua, Zurutuza albaiterua, Manu Oñatibia, au be albaiterua, eta "Atxukale" besteen artean, mutu bizitzen jakin ez ebenak.

Danak gaurkoentzat zarrak, baiña euskera zaarrari ezta ataraten ekienak. Eta gu ere... urtetako garizuman.

Zenbat lan Manu zanak baserritarren artean, euren mesedean batetik eta euren jatortasuna eta euskal aberastasuna aldizkari eta paperetan zabaltzen.

Urteak dira. Bere anai Yon ospetzua il zanean, bere oroiz eta bere gogoala zalakoan "Saski Naski" iru illebeteroko aldizkaria kaleratzen ausartu zan. Ia irurogeta amar aletara eldu dana. Bera izan da aldizkari orren alma mater, idazleak billatzen, atea zabaltzen eta kostuei aurre emoten.

Bera izan da, baita, Eleizaren aldeko lanetan "Pastoral" ekitaldietan be buru belarri sartzeko adorea euki izan dauana, kristau zaletasunez eta ziurretik tolosar parroko baten esana gogoan erabiliaz: Euskerak bere burua salbatzea Jainko berberaren naia dala.

Eta azken urteotan, eskoletako umeei euskal dantza, joko eta abestiak erakusten bere anaiak asmatu eban ekintzen bidez zaletuta, bere izan da diska, kasete eta irudi bidezko gertaerak burutu eta egiten ausartu dana, Europatik laguntzat lortzeko alegiñetan orko eta orretazko milloiak ordaintzeko asmotan.

Bera izan da Jesus Gaztañaga Errezilgo erretore eta apaiz bultzagillea il ondoren, sortzaileetako izan ziran Euskerazaintza, Euskeraren erri akademjaren biziari eusten gogo biziz ekin dautsana, oraintsu arte erakunde orretako idazkari izanaz, eta euskera jator eta errikoari indar eta zintzotasuna emoteko, errian entzun eta erritarrengantik jasotako esaldi jatorrak batzen alegindu eta aldizkarian agertzen nekatuten ez zana.

Manu Oñatibia ez da izan gizon zaratatsu eta kaletarra. Baiña bere gogo ixil eta etengabeagaz, or agertu izan da, beti lanean, arrokeri gabe, baiña beti itxaropen-tsu, beti baikor, askotan baikortasun orrek mendetuarren, etsipenean jausi barik.

Manu euskal ameslari ixila izan da, baiña eragillea, berak lan egiñaz beste askori langille izaten erakutsi dautsana. Kosta egiten da bere lako gizonak billatu eta ziurretik, euskal ekintza eskolan igarriko da bere arnas utsunea.

Agur Manu adiskide, egun aundirarte.

Augustin Zubikarai
("Deia"n agertua)